

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

421/2026 Erabakia, ekainaren 30ekoa, Foru Gobernu Kontseilukoena. Onestea 2024., 2025., 2026. eta 2027. urteetarako bosgarren dirulaguntza ematea, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 19ko 155/2024 Erabakiaren bidez deitutako hirigintza plangintzako tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteko ordainsariak finantzatzeko

AURREKARIAK

Lehenengoa. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 21eko 48/2023 Foru Dekretuaren bidez onespena eman zitzaien plangintza orokorreko hirigintza tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren agiriak idazteagatik ordaindu beharreko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileei. Foru dekretu hori 2023ko abenduaren 4ko ALHAOn argitaratu zen.

Bigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 19ko 155/2024 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion 2024, 2025, 2026 eta 2027ko ekitaldietarako dirulaguntzak emateko urte anitzeko deialdiari, hirigintza plangintzako tresnak idazteko ordainsariak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari buruzko dokumentuak idazteagatik ordaindu beharreko ordainsariak finantzatzeko. Erabaki hori 2024ko apirilaren 5eko ALHAOn argitaratu zen.

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan eta deialdiaren oinarrietan jasotakoaren arabera:

— Gobernu Kontseiluaren ekainaren 18ko 371/2024 Erabakiaren bidez, 2024ko apirilaren 30era bitartean aurkeztutako eskaerak aintzat hartuta, zenbait dirulaguntza eman ziren; guztira, 98.370,85 euro.

— Gobernu Kontseiluaren azaroaren 26ko 692/2024 Erabakiaren bidez, 2024ko maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean aurkeztutako eskaerak aintzat hartuta, zenbait dirulaguntza eman ziren; guztira, 195.308,42 euro.

— Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 383/2025 Erabakiaren bidez, 2024ko urriaren 1etik 2025eko apirilaren 30era bitartean aurkeztutako eskaerak aintzat hartuta, dirulaguntzak eman ziren; guztira, 123.771,11 euro.

— Gobernu Kontseiluaren azaroaren 18ko 692/2025, Erabakiaren bidez, 2025eko maiatzaren 1etik irailaren 30era bitartean aurkeztutako eskaerak aintzat hartuta, zenbait dirulaguntza eman ziren; guztira, 78.173,25 euro.

Laugarrena. 2026ko urriaren 1etik 2026ko apirilaren 30era bitartean, 9 eskaera aurkeztu ziren.

Bosgarrena. Eskaerak aztertu ondoren, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak dirulaguntzak emateari buruzko txostena egin zuen 2026ko maiatzaren 18an.

Seigarrena. 2026ko maiatzaren 22an, deialdia arautzen duten oinarriei jarraituz, kide anitzeko organoa bildu zen eskaerak aztertu eta ebaluatzeko eta dirulaguntzak emateko proposamen arrazoitua egiteko.

Aurrekari horiei honako oinarri hauek aplikatzea dagokie:

Lehenengoa. 9 eskaerak Arabako Lurralde Historikoko 5 udalenak dira: Barrundia, Laguardia, Leza, Okondo eta Urizaharra, guztiak ere 7.000 biztanletik beherakoak.

Bigarrena. Eskaerak aldeztu aurretik aztertzea, oinarrietako baldintzak betetzen dituzten ala ez ikusteko.

Lehenengo oinarriaren arabera, eskaeren aurre ebaluazioa egin da Arabako Foru Aldundian sartu ahal, ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztutako agiriak zuzen eta osorik daudela egiaztatzeko. Aurkeztutako eskaerak aztertuta, 10 eguneko epea eman zaie udalei agiriak zuzentzeko.

Akatsak zuzentzeko epea igarota, egiaztatu da eskaera guztiek dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituztela eta, beraz, dirulaguntza jasotzea dagokie.

Hirugarrena. Eman beharreko dirulaguntzen laburpenaren amaierako koadroa.

Aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren, deialdia arautzen duten oinarrien arabera, eta 1.4.3. oinarria aplikatuz hartarako eraturako kide anitzeko organoak egindako proposamen arrazoitua ikusirik, honako dirulaguntza hauek eman behar dira:

ERAKUNDEA	ESKAERA	DIRUZ LAGUNDUTAKO FASEA	ZENBATEKOA
Leza	HAP0	Testu bateginaren onespina	4.956,35 €
Leza	EAE	Testu bateginaren onespina	1.210,00 €
Okondo	HAP0	Herritarrek parte hartzeko programa	16.335,00 €
Urizaharra	HAP0	Testu bateginaren onespina	5.773,54 €
Urizaharra	EAE	Testu bateginaren onespina	1.355,20 €
Barrundia	EAE	Hasierako agiri estrategikoa	3.630,00 €
Barrundia	HAP0	Aurrerapena	16.335,00 €
Laguardia	HAP0	Herritarrek parte hartzeko programa	20.006,77 €
Laguardia	HAP0	Hirigintza informazioa	60.020,31 €

Guztira, 129.622,17 euro emango dira.

Laugarrena. Esleitutako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea:

Bat etorri azaroaren 21eko 48/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsitako deialdiaren oinarri arautzaileek 12.2. oinarrian ezartzen dutenarekin, dirulaguntzak esleitzeko ebazpenean xedatutakoaren arabera ordainduko dira dirulaguntzak.

Baldin eta diruz lagundutako fakturen ordainagiriak ez badira egiaztatu dirulaguntza esleitzeko ebazpena eman aurretik, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa. Erakunde onuradunak ordainagiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza ordaindu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean.

Emandako eskaera guztiek frogatu dute helburua bete dutela; horretarako, eskatutako faseen fakturak aurkeztu dituzte.

Halaber, aurkeztu dira emandako eskaera guztien ordainagiriak.

Bosgarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 21eko 48/2023 Foru Dekretuak eta gainerako araudi aplikagarriak xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseilua bera da prozedura ebazteko organo eskuduna.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horrenbestez, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren proposamenez, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 153/2023 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Ebazpen honen I. eranskinean zerrendatutako laugarren esleipenari dagozkion dirulaguntzak ematea eta ordaintzea, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 21eko 48/2023 Foru Dekretuaren lehenengo oinarriaren 1.4.4 puntuan xedatutakoa aplikatuz. Foru Dekretu horren bidez, onspena eman zitzaien plangintza orokorreko hirigintza tresnak eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren agiriak idazteagatik ordaindu beharreko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileei.

129.622,17 euroko esleipen hori Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuko 10801. G/151100/76290103 "Hirigintza tresnen finantzaketa, deialdi berria" partidaren kontura egingo da.

Bigarrena. Ordainketa onestea honako erakunde hauentzat eta honako zenbateko hauetan:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA
Leza	4.956,35 €
Leza	1.210,00 €
Okondo	16.335,00 €
Urizaharra	5.773,54 €
Urizaharra	1.355,20 €
Barrundia	3.630,00 €
Barrundia	16.335,00 €
Laguardia	20.006,77 €
Laguardia	60.020,31 €

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio bideari, eta aurkaratu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA